HERNANIKO GOIZ EGUZKI ERAIKINAREN BIRGAITZE PARTZIALA EGITEKO OBRA KONTRATAZIOA

KLAUSULA ADMINISTRATIBO BEREZIEN PLEGUA

PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUA

CONTRATACIÓN DE LAS OBRAS PARA LA REHABILITACIÓN PARCIAL DEL EDIFICIO GOIZ EGUZKI DE HERNANI

PLIEGO DE CLAUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES

PROCEDIMIENTO ABIERTO SIMPLIFICADO

LABURPEN TAULA/ CUADRO RESUMEN

A) KONTRATUAREN XEDEA	A) OBJETO DEL CONTRATO
Hernaniko Goiz eguzki eraikinaren birgaitze partziala egiteko obra kontratatzea ARRAZTIO Arkitektoak lantaldeko Xabier Arraztio Oiz arkitektoak idatzi duen proiektuarekin bat etorriz. CPV kodea: 45261900-3 Teilatuak konpontzea eta mantentzea. 45262900-0 Balkoi eta terrazetako lanak 45421132-8 Leihoak instalatzea	Contratación de las obras para la rehabilitación parcial del edificio Goiz Eguzki de Hernani, de conformidad con el Proyecto redactado por el arquitecto Xabier Arraztio Oiz del equipo de de arquitectura ARRAZTIO. CPV: 45261900-3 Reparación y mantenimiento de tejados. 45262900-0 Trabajos de balcones y terrazas 45421132-8 Instalación de ventanas

B) LIZITAZIOAREN GEHIENEKO AURREKONTUA

EXEKUZIO MATERIALAREN AURREKONTUA (EMA) **PRESUPUESTO EJECUCION MATERIAL (PEM)**	**241.616,07 €**
Gastu orokorrak / Gastos generales (%13)	31.410,09 €
Industri irabazia / Beneficio industrial (%6)	14.496,96 €
EXEKUZIO KONTRATATUAREN AURREKONTUA **PRESUPUESTO EJECUCION CONTRATA (PEC)**	**287.523,12 €**
BEZ / IVA %21	60.379,86 €
AURREKONTUA GUZTIRA (BEZa barne) **TOTAL PRESUPUESTO (IVA incluido)**	**347.902,98 €**

BALIO ZENBATETSIA/ VALOR ESTIMADO: 287.523,12 €

C) LIZITATZAILEAREN KAUDIMEN EKONOMIKOA, FINANTZARIOA ETA TEKNIKOA	C) SOLVENCIA ECONOMICA, FINANCIERA Y TECNICA DEL LICITADOR
500.000.- euroko balio zenbatetsia baino txikiagoa duten obra kontratuetan kaudimena egiaztatu ahal	Para los contratos de obras cuyo valor estimado sea inferior a 500.000.- euros se podrá acreditar la

izango da, bi hauetako modu batean: behean zehaztutako sailkapena egiaztatuz edo plegu honetako 11. klausulan ezarritako kaudimen ekonomiko eta kaudimen teknikoko baldintzak egiaztatuz.	solvencia, indistintamente, mediante la clasificación abajo indicada o acreditando los requisitos de solvencia económica y solvencia técnica detallados en la cláusula 11ª de este pliego.

Sailkapena/ Clasificación:

TALDEA/ GRUPO	AZPITALDEA/ SUBGRUPO	KATEGORIA/CATEGORIA
C	04	1

D) PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA	**D) PLAZO DE ENTREGA DE LAS PROPOSICIONES**
20 egun natural, kontratatzailearen profilean argitaratzen denetik kontatzen hasita.	20 días naturales desde el anuncio en el perfil de contratante
E) ESLEIPEN-IRIZPIDEAK	**E) CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN**
• Proposamen ekonomikoa (0-80) • Berme epea handitzea (0-20)	• Oferta económica (0-80) • Ampliación del plazo de garantía (0-20)
F) KONTRATUA BURUTZEKO EPEA	**F) PLAZO DE EJECUCION**
5 hilabete, zuinketa akta sinatzen denetik.	5 meses contados a partir de la firma del acta de comprobación del replanteo.
G) BEHIN-BEHINEKO BERMEA	**G) GARANTIA PROVISIONAL**
Ez da eskatzen.	No se exige.
H) BEHIN BETIKO BERMEA	**H) GARANTIA DEFINITIVA**
Esleipen prezioaren %5a, Bez kanpo	5% del precio de adjudicación, excluído IVA.

KLAUSULAK

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA. LOTEAK. ALDAKETAK EDO ALTERNATIBAK.

1.1 Agiri honetan oinarrituta idazten den kontratuaren xedea izango da Hernaniko Goiz Eguzki eraikinaren birgaitze partziala egiteko obra kontratatzea ARRAZTIO Arkitektoak lantaldeko Xabier Arraztio Oiz arkitektoak idatzi duen eta Tokiko Gobernu Batzarrak agiri honekin

CLAUSULAS

I.- CONTENIDO DEL CONTRATO

1. OBJETO DEL CONTRATO. LOTES. VARIANTES.

1.1. Objeto: El contrato que en base al presente pliego se realice tendrá por objeto la contratación de las obras para la rehabilitación parcial del edificio Goiz Eguzki de Hernani, de conformidad con el Proyecto redactado por el arquitecto Xabier Arraztio Oiz del equipo de de

batera onetsi duen proiektuarekin bat etorriz, eta halaber, espedientean ageri den dokumentazio teknikoarekin bat etorriz; izan ere, azken honek kontratu-izaera edukiko du eta horren helburua azaroaren 8ko 9/2017, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen (SPKL) 13. artikuluaren barruan sartua dago.

arquitectura ARRAZTIO, y aprobado por la Junta de Gobierno Local junto con el presente Pliego, y la documentación técnica que figura en el expediente que tendrá carácter contractual y cuyo objeto está comprendido dentro del art.13 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP).

Goiz Eguzki eraikineko erabiltzaileek eskatuta, Hernaniko Udalak, eraikinaren gabeziak konpontzeko, Goiz Eguzki eraikineko estalkiaren eta terrazaren egokitze eta eguneratze beharra onartu du. Eraikina zaharkitua dago eta estalki eta terrazak filtrazio arazoak dituzte. Bestalde, eraikinaren efizientzia energetikoa hobetu aldera eta espazio barruko klima egokia lortzeko kanpoko arotzeria ere ordezkatzea erabaki da.

A petición de los usuarios del edificio Goiz-Eguzki, el Ayuntamiento de Hernani ha aprobado la necesidad de adecuar y actualizar la cubierta y terrazas del edificio Goiz-Eguzki para subsanar las deficiencias de las actuales cubiertas y terrazas. El edificio está envejecido y la cubierta y la terraza presentan problemas de filtración. Por otra parte, con el fin de mejorar la eficiencia energética del edificio y conseguir un clima adecuado dentro del espacio interior, se pretenden sustituir las carpinterías exteriores de las fachadas.

Egun eraikinaren estalkiak eta terrazek dituzten itoginak konpontzeko, esku-hartze partziala egin behar da. Itxitura horizontalak aztertu eta eguneratu behar dira, estaldurak zaharkituak daude eta paramentu horizontal hauen eguneratzea beharrezkoa da.

La reparación de la cubierta actual del edificio y de las goteras de las terrazas requiere una intervención parcial del edificio. Se deberán revisar y actualizar los cerramientos horizontales, el estado envejecido de los revestimientos y la necesidad de actualización de estos paramentos horizontales.

Inguratzaile termikoa osatzen duten arotzeriak zaharkituak geratu dira. Egurrezko arotzeriak eta orri bakarreko beira sinpleak daude fatxada batzuetan. Arotzeria hauek ordezkatzeak onura handia egingo du eraikinean.

Las carpinterías exteriores que conforman la envolvente térmica han quedado obsoletas. Existen huecos de fachadas con carpinterías exteriores de madera y vidrios simples de una hoja. La sustitución de estas carpinterías puede suponer un gran beneficio a nivel de eficiencia para el edificio.

Jarduera ezaugarriak eta egokitzapen obra lan horiek deskribatu eta jasotzeko ARRAZTIO arkitekturako lantaldeak “Goiz Eguzki eraikinaren birgaitzea exekuzio proiektua” idatzi du.

Para describir y recoger las características de la actividad y las obras de adecuación, el equipo de arquitectura ARRAZTIO ha redactado el proyecto de obra “Proyecto de ejecución de rehabilitación del edificio Goiz Eguzki”.

Kontratuaren xedea plegu honetan adierazitako eta zehaztutako Goiz Eguzki eraikinaren birgaitze partziala gauzatzeko lanak egikaritzea da.

El objeto del contrato es la ejecución de las obras de reforma y rehabilitación parcial del edificio Goiz Eguzki indicada y especificada en el presente pliego.

Esku-hartzearen helburu zehatzei dagokienez, honakoak aipa daitezke:

En cuanto a los objetivos concretos de la intervención pueden citarse los siguientes:

- Estalkiaren birgaitzea: inguratzaile termikoaren goialdeko itxituraren birgaitzea: isolamendu, inpermeabilizazio eta estaldura

- Terrazaren birgaitzea: isolamendu, inpermeabilizazio eta estaldura

- Inguratzaile termikoko (fatxadetako) arotzerien ordezkatzea

- Rehabilitación de cubierta: rehabilitación del cerramiento de la parte superior de la envolvente térmica: aislamiento, impermeabilización y revestimiento.
- Rehabilitación de la terraza: aislamiento, impermeabilización y revestimiento

- Sustitución de carpinterías de la envolvente térmica

CPV kodea:
45261900-3 Teilatuak konpontzea eta mantentzea.
45262900-0 Balkoi eta terrazetako lanak
45421132-8 Leihoak instalatzea

1.2. Loteak: Kontratu honen xedea lote bakarrean jaso da.
Kontratua ezin da sortatan banatu proiektua gauzatzeko egin behar diren lanek elkarren arteko erlazioak dituztelako eta gainjartzen direlako. Aterpea eraikitzeko beharrezko diren lanek harreman zuzena dute beraien artean.

1.3 Aldaketa edo alternatibak: ez dira onartuko.

2. EGITEKO EPEA

Kontratu honen helburu diren obrak burutzeko epea hau da: **5 hilabete** zuinketaren egiaztapen-akta izenpetu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Gehienezko bost hilabeteko (5) epean lanak guztiz amaituko dira. Lanak amaitutzat emateko esleipendunak, obra-zuzendaritzak eta Hernaniko Udalak harrera-akta sinatuko dute.

Kontratu honen esleipendunak, nolanahi ere, Obra Zuzendaritzaren jarraibideak bete beharko ditu, lan horiek koordinatzeari begira.

Esleipenduna behartua egongo da kontratua gauzatzeko finkatutako gehieneko epea betetzera, eta halaber, ezar litezkeen epe partzialak eta epe horiek zuinketaren egiaztapen-akta sinatu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira kontatzen esleipendunarentzat.

Aipatutako epe horiek igarotzen baldin badira, kontratista berandutze-egoeran dagoela ulertuko da, eta ez da horri buruz inolako ohartarazpen egin beharrik izango.

3. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA.

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua **287.523,12€** izango da, BEZari dagokion **60.379,86€** gehituta, guztira **347.902,98 €** ko zenbatekoa izango du, edonola ere, enpresa lehiatzaileek zenbateko hori beherantz hobetu ahal izango dute beren eskaintzetan.

CPV:
45261900-3 Reparación y mantenimiento de tejados.
45262900-0 Trabajos de balcones y terrazas
45421132-8 Instalación de ventanas

1.2 Lotes: El objeto de este contrato viene configurado como un único lote.
El contrato no puede dividirse en lotes debido a la interrelación y solapamiento de los trabajos necesarios para la ejecución del proyecto. Las adaptaciones necesarias para la construcción de la marquesina están directamente relacionadas entre sí.

1.3 Variantes: no se admitirán variantes.

2. PLAZO DE EJECUCIÓN

El plazo máximo de ejecución de las obras objeto de la presente contratación será de **5 meses** contadas a partir de la firma del acta de comprobación del replanteo.

El plazo máximo para la finalización de los trabajos será de cinco meses (5). Para dar por finalizados los trabajos la empresa adjudicataria, la dirección de obra y el Ayuntamiento de Hernani firmarán el acta de recepción.

El adjudicatario de este contrato deberá seguir en todo caso las instrucciones de la Dirección de Obra en orden a la coordinación de los trabajos.

El adjudicatario estará obligado al cumplimiento del plazo total fijado para la realización del contrato, así como de los plazos parciales que, en su caso, se hubieran establecido, que comenzarán a contar para el adjudicatario a partir del día siguiente a la firma del acta de comprobación del replanteo.

El contratista se entenderá en incurso en mora por el transcurso de los plazos citados, no siendo precisa comunicación a este respecto.

3. PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN. VALOR ESTIMADO DEL CONTRATO.

El presupuesto base de licitación es de **287.523,12€** más **60.379,86€** correspondientes al IVA haciendo un Total de **347.902,98€** cantidad que podrá ser mejorada a la baja en sus ofertas por las empresas licitadoras.

EXEKUZIO MATERIALAREN AURREKONTUA (EMA) **PRESUPUESTO EJECUCION MATERIAL (PEM)**	**241.616,07 €**
Gastu orokorrak / Gastos generales (%13)	31.410,09 €
Industri irabazia / Beneficio industrial (%6)	14.496,96 €
EXEKUZIO KONTRATATUAREN AURREKONTUA **PRESUPUESTO EJECUCION CONTRATA (PEC)**	**287.523,12 €**
BEZ / IVA %21	60.379,86 €
AURREKONTUA GUZTIRA (BEZa barne) **TOTAL PRESUPUESTO (IVA incluido)**	**347.902,98 €**

Ulertuko da eskaintza ekonomikoak barne dituela proiektuan jasotako aleko prezio guztiak, proposamen ekonomikoan jasotako beherako portzentai berdina aplikatuko zaielarik.

Horren barruan, gastu guztiak sartuak daude; lan arriskuen prebentzioa, garraioa, gastu orokorrak, industri irabazia, eta kontratua burutzeko beharrezko diren gastu orokor guztiak, baita indarrean dauden xedapenen arabera ezargarri diren zerga guztiak ere, Balio Erantsiaren Zerga barne.

Aurrekontu hori gainditzen duten eskaintzak baztertuak izango dira.

Eskaintza ekonomikoa egokia izango da esleipendunak indarrean dagoen hitzarmen sektoriala ezartzearen ondorioz sortzen den kostuari aurre egiteko; ezingo dira ordaindu hitzarmenean jasotako orduko prezioa, Gizarte Segurantza gehituta, baino soldata baxuagoak.

Kontratuaren balio zenbatetsia: 287.523,12€

4. FINANTZATZEA

Behar hainbateko aurrekontu-kreditua dago kontratu hau betetzeak Udalari sor diezazkiokeen obligazioei aurre egiteko.

Aurrekontu partida: 1 02.622.05.152.20 2024

5. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Prezioak ez dira berrikusiko.

Se entenderá que la propuesta económica incluye los precios unitarios recogidos el el proyecto afectados en igual porcentaje de baja que el contenido en su proposición económica.

En dicho tipo de licitación máximo se encuentran incluidos todos los gastos: de prevención de riesgos laborales, transporte, gastos generales, beneficio industrial, y demás gastos generales necesarios para la ejecución del contrato, así como los tributos que sean de aplicación según las disposiciones vigentes, incluido el Impuesto sobre el Valor Añadido.

Las proposiciones que superen dicho presupuesto serán desechadas.

La oferta económica deberá ser adecuada para que el adjudicatario haga frente al coste derivado de la aplicación del convenio sectorial que corresponda, sin que en ningún caso los precios/hora de los salarios contemplados puedan ser inferiores a los precios/hora del convenio más los costes de Seguridad Social.

Valor estimado del contrato: 287.523,12€

4. FINANCIACIÓN

Existe crédito presupuestario suficiente para atender a las obligaciones que se deriven para el Ayuntamiento del cumplimiento del contrato.

Partida presupuestaria: 1 02.622.05.152.20 2024

5. REVISIÓN DE PRECIOS

No procederá la revisión de precios

6. NOLA ORDAINDU

Kontratuaren prezioa hilero Obra Zuzendaritzak egindako lanei buruzko ziurtagiriaren bidez ordainduko da, aurrez enpresa esleipendunak dagokion faktura (paperean edo elektronikoki) aurkeztuta, SPKLren 198 artikuluan jasotakoaren arabera.

Abenduaren 27ko 25/2013 Legeak xedatzen duenaren arabera, faktura elektronikoa ematera derrigortuta dauden entitateek fakturak formatu elektronikoan Gipuzkoako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoaren bidez bidali beharko dituzte, helbide honetara: https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua, Hernaniko Udala atxikita baitago, horretarako Udalaren DIR3 kodeak erabiliz:

1. Kontabilitate Bulegoa: L01200408
2. Organo Kudeatzailea: L01200408
3. Unitate Izapidetzailea: L01200408

7. BERMEAK

7.1 **Behin behineko bermea:** ez da eskatzen.

7.2 Behin betiko bermea: Esleipen prezioaren %5a, Bez kanpo

II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

8. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

Kontratu hau **prozedura ireki sinplifikatua jarraituta** esleituko da, SPKLren 159 eta ondorengo artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

Esleipen irizpideak ondorengoak izango dira:

Automatikoki baloratuko diren irizpideak

a) ESKAINTZA EKONOMIKOA (0- 80 puntu)

Eskaintza ekonomiko hoberenari emango zaio puntuazio handiena, eta gainerako eskaintzen puntuazioa ondorengo formularen arabera kalkulatuko da.

6. FORMA DE PAGO

El precio del contrato se abonará mediante certificaciones mensuales emitidas por el Director de Obra correspondientes a las obras realmente ejecutadas, previa presentación por la empresa adjudicataria de la factura correspondiente (electrónica o en papel), todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 198 de la LCSP.

Conforme a lo dispuesto en la Ley 25/2013, de 27 de diciembre, las entidades obligadas a emitir factura electrónica deberán remitir sus facturas en formato electrónico a través de la Sede Electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, dirección: https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua, al que el Ayuntamiento de Hernani está adherido, utilizando los códigos DIR3 del Ayuntamiento:

1. Oficina Contable: L01200408
2.Órgano Gestor: L01200408
3. Unidad Tramitadora: L01200408

7. GARANTÍAS

7.1 Garantía provisional: no se exige

7.2 Garantía definitiva: 5% del precio de adjudicación, excluído IVA.

II.- PROCEDIMIENTO PARA CONTRATAR

8. PROCEDIMIENTO Y FORMA DE ADJUDICACIÓN

La adjudicación del presente contrato se realizará por **procedimiento abierto simplificado**, regulado en el artículo 159 y ss de la LCSP.

Los criterios de adjudicación serán los siguientes:

Criterios automáticos

8.2. a) OFERTA ECONÓMICA. (0- 80 puntos)

Se otorgará la máxima puntuación a la mejor oferta económica. La puntuación del resto de ofertas será el resultado de la aplicación de la siguiente fórmula:

FORMULA

Pl=80*(Bl/Bmax)

Non:
Pl: Lizitatzaileak jasotako puntuazioa
Bl: Lizitatzailearen baja
Bmax: Eskaintzarik onenak egindako gehienezko baja

8.2.b) BERME EPEA HANDITZEA (0- 20 puntu)

Lizitatzaileak eskaini dezake pleguan zehaztutako gutxieneko berme epea -urte 1- baino luzeagoa. Bermearen inguruko eskaintzarik aurkezten ez bada 0 puntu jasoko dira atal honetan. Berme-epea luzatzea ondoren adieraziko den eran baloratuko da:

- Berme-epea 2 urtera luzatzea: 5 puntu
- Berme-epea 4 urtera luzatzea: 10 puntu.
- Berme-epea 6 urtera luzatzea: 15 puntu.
- Berme-epea 8 urtera luzatzea: 20 puntu.

9. LIZITAZIOAREN PUBLIZITATEA

Lizitazio honen iragarkia Hernaniko Udaleko kontratatzailearen profilean argitaratuko da (www.hernani.eus) Euskadiko kontratazio plataforman kokatu dagoena.

10. LIZITATZAILE-ERREGISTRO OFIZIALA

SPKLren 159.4.a) artikuluaren arabera, prozedura sinplifikatu bidezko lizitazioetara aurkezten diren **lizitatzaile guztiek** Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean **izena eman beharko dute, eskaintzak aurkezteko epea amaitzen denerako**, konkurrentzia mugatzen ez bada, betiere.

Halaber, onargarritzat joko da lizitatzailearen proposamena, dagokion erregistroan izena emateko eskaera egina badago, beti ere, eskaera eskaintzak aurkezteko azken eguna baina lehenagokoa bada. Inguruabar hori frogatzeko, erregistroak emandako eskabidea jaso izanaren adierazpena aurkeztu beharko da, eta horretaz gain, beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztu izanaren eta subsanatzeko errekerimendurik jaso ez izanaren erantzunkizuneko aitorpena aurkeztuko dira.

Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen

FÓRMULA:

Pl= 80x (Bl/Bmax)

Donde:
Pl: Puntuación obtenida por la licitadora
Bl: Baja licitadora
Bmax: Baja máxima de la mejor oferta

8.2. b) AMPLIACIÓN DEL PLAZO DE GARANTIA. (0-20 puntos)

El licitador podrá ofrecer un plazo de garantía superior a 1 año. A la propuesta que no presente oferta de garantía se le otorgarán 0 puntos en este apartado. Se valorará de la siguiente manera:

- Ampliación a 2 años: 5 puntos.
- Ampliación a 4 años: 10 puntos.
- Ampliación a 6 años: 15 puntos.
- Ampliación a 8 años. 20 puntos.

9. PUBLICIDAD DE LA LICITACIÓN

El anuncio de la presente licitación será objeto de publicación en el perfil de contratante del Ayuntamiento de Hernani (www.hernani.eus) alojado en la plataforma de contratación de Euskadi.

10. REGISTRO OFICIAL DE LICITADORES

De conformidad con el artículo 159.4.a) de la LCSP, **todos los licitadores y las licitadoras** que se presenten a licitaciones realizadas a través del procedimiento simplificado deberán estar inscritos en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público o en el Registro de Contratistas de la Comunidad Autónoma Vasca, **en la fecha final de presentación de ofertas** siempre que no se vea limitada la concurrencia.

También se considerará admisible la proposición del licitador que acredite haber presentado la solicitud de inscripción en el correspondiente registro, junto con la documentación preceptiva para ello, siempre que tal solicitud sea de fecha anterior a la fecha final de presentación de las ofertas. La acreditación de esta circunstancia tendrá lugar mediante la aportación del acuse de recibo de la solicitud, y de una declaración responsable de haber aportado la documentación preceptiva y de no haber recibido requerimiento de subsnación.

La inscripción en el Registro Oficial de Licitadores y

Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean izena ematen duten lizitatzaileek ez dute aurkeztu beharko, bertan jasotakoaren arabera eta kontrako frogarik ez badago, kontratatzeko baldintzak (nortasuna eta jarduteko gaitasuna ordezkaritza, profesional edo enpresa gisa duten gaikuntza, kaudimen ekonomiko eta finantzarioa, eta sailkapena) betetzen dituztela egiaztatzeko frogagiririk, ezta erregistroan jasota utzi beharreko kontratatzeko debekuren baten pean ez daudela egiaztatzeko frogagiririk ere.

Empresas Clasificadas del Sector Público o en el Registro Oficial de Contratistas del País Vasco eximirá a los licitadores y las licitadoras inscritos, a tenor de lo en él reflejado y salvo prueba en contrario, de la presentación en las convocatorias de contratación de las condiciones de aptitud del empresario en cuanto a su personalidad y capacidad de obrar, representación, habilitación profesional o empresarial, solvencia económica y financiera, y clasificación, así como de la acreditación de la no concurrencia de las prohibiciones de contratar que deban constar en aquél.

SPKLren 139.1. artikuluaren arabera, proposamenik aurkezteak berekin dakar Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialeko edo Europar Batasuneko kide den estatu bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetako datuak kontsultatzeko baimena ematea Kontratazio Mahaiari eta Organoari.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 139.1 LCSP, la presentación de las proposiciones supone la autorización a la mesa y al órgano de contratación para consultar los datos recogidos en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público, o en el Registro Oficial de Contratistas del País Vasco o en las listas oficiales de operadores económicos en un Estado miembro de la Unión Europea.

11. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

11. CAPACIDAD Y SOLVENCIA PARA CONTRATAR

Gaitasun juridikoa eta jardutekoa duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide honetan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute, SPKLREN 71. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta.

Podrán tomar parte en este procedimiento de contratación las personas naturales o jurídicas que se hallen en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, acrediten su solvencia económica, financiera y técnica o profesional y no estén incursas en ninguna de las prohibiciones para contratar establecidas en el artículo 71 de la LCSP.

Halaber, beren kabuz nahiz baimendutako pertsona batek ordezkaturik egin ahal izango dute hori, horretarako berariaz emandako ahalorde askietsia erabiliz. Pertsona juridikoa bertako kideren batek ordezkatzen duenean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Kasu batean nahiz bestean, arestian aipatutako kontratatzeko debekuek ordezkariari ere eragingo diote.

Asimismo, podrán hacerlo por sí o representadas por persona autorizada, mediante poder bastante otorgado al efecto. Cuando en representación de una persona jurídica concurra algún miembro de la misma, deberá justificar documentalmente que está facultado para ello. Tanto en uno como en otro caso, al representante le afectan las causas de incapacidad para contratar citadas.

Gainera, enpresa lehiatzaileen jarduera nagusiak zerikusi zuzena izan behar du kontratu honen xedearekin, eta helburu hori behar bezala burutzeko behar adina giza baliabide eta baliabide material eduki behar ditu bere erakundeak.

Además las empresas licitadoras deberán tener como finalidad realizar actividades que tengan relación directa con el objeto del presente contrato y disponer de una organización dotada de elementos personales y materiales suficientes para la debida ejecución del mismo.

Enpresariek, halaber, kontratu hau burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

Los empresarios deberán contar, asimismo, con la habilitación empresarial o profesional que, en su caso, sea exigible para la realización de la actividad o prestación objeto del presente contrato.

Enpresari batzuk kontratazioan batera parte hartzeko interesatuta daudenean, aldi baterako enpresa elkartea sortu ahal izango dute horretarako. Esleipena bere alde egiten den arte ez da beharrezkoa izango elkarte hori eskritura publikoaren bidez formalizatzea. Kasu horretan, enpresariak modu solidarioan erantzungo dute Administrazioaren aurrean, eta elkartearen ordezkari edo apoderatu ahaldun bakarra izendatu beharko dute, eta horrek kontratutik eratortzen diren eskubideak gauzatzeko eta obligazioak betetzeko adinako ahalmenak izango ditu, kontratua amaitu arte.

Cuando varios empresarios estén interesados en concurrir conjuntamente a la contratación podrán constituir una unión temporal al efecto, sin que sea necesaria la formalización de la misma en escritura pública hasta que se haya efectuado la adjudicación en su favor. En este caso, los empresarios quedarán obligados solidariamente ante la Administración y deberán nombrar un representante o apoderado único de la unión con poderes bastantes para ejercitar los derechos y cumplir las obligaciones que del contrato se deriven hasta la extinción del mismo.

Kaudimena egiaztatzeko bitartekoak:

Lizitatzaileek berdin egiaztatu ahal dute beren kaudimena ondoren zerrendatzen diren termino eta bitartekoetan kaudimen ekonomiko, finantzario eta profesionalaren betekizun espezifikoen bidez edota Ogasun eta Herri Administrazioetako Ministerioak edo Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailak emandako sailkapen ziurtagiria, obra-kontratista gisa inskribatuta dagoela egiaztatzen duena, HONAKO SAILKAPEN HONETAN:

Medios para acreditar la solvencia:

Los licitadores podrán acreditar indistintamente su solvencia mediante los requisitos específicos de solvencia económica, financiera y técnica o profesional en los términos y por los medios que se relacionan a continuación o bien mediante Certificado de clasificación expedido por el Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas o por el Departamento de Hacienda y Administración Pública del Gobierno Vasco acreditativo de su inscripción como contratista de obras en la SIGUIENTE CLASIFICACIÓN:

taldea	azpitaldea	kategoria
C	04	1

Grupo	Subgrupo	Categoria
C	04	1

- Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa, bitarteko hau erabilita egiaztatu beharko da:

- La Solvencia económica y financiera, se deberá acreditar utilizando el siguiente medio:

Kontratatu nahi den eremuari dagokion urteko negozio bolumena enpresariaren jarduerak hasteko edo eratzeko eta eskaintzak aurkezteko datak kontuan hartuta azkeneko hiru urteetako bolumen handieneko urteari dagokiona, 100.000.- euro edo handiagokoa izan behar du.

Volumen anual de negocios en el ámbito al que se refiera el contrato,referido al mejor ejercicio dentro de los tres últimos disponibles en función de las fechas de constitución o de inicio de actividades del empresario y de presentación de las ofertas por importe igual o superior a 100.000.- euros.

Lizitatzailearen edo hautagaiaren negozioen urteko bolumena bere urteko kontuen bidez, onartuak eta Merkataritza Erregistroan jasoak, egiaztatuko da, eta bestela, inskribatuta egon behar dueneko Erregistro Ofizialean jasota dauden kontuen bitartez. Merkataritza Erregistroan inskribatu gabeko enpresari indibidualek beren urte negozioen bolumena Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuen eta urteko kontuen bitartez egiaztatuko dute.

El volumen anual de negocios del licitador o candidato se acreditará por medio de sus cuentas anuales aprobadas y depositadas en el Registro Mercantil, si el empresario estuviera inscrito en dicho Registro, y en caso contrario por las depositadas en el Registro Oficial en que deba estar inscrito. Los empresarios individuales no inscritos en el Registro Mercantil acreditarán su volumen anual de negocios mediante sus libros de inventarios y cuentas anuales legalizados por el

Registro Mercantil

- **Kaudimen teknikoa,** bitarteko hau erabilita egiaztatu beharko da:

Azkeneko bost urteetan egindako obra nagusien zerrenda, zenbatekoa, datak eta horiek norentzako egin diren, publiko edo pribatuarentzako, aipatuz.

Egindako zerbitzuak edo lanak egiaztatuko dira organo eskudunak egin edo ontzat emandako ziurtagirien bitartez, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean; hartzailea subjektu pribatua denean, honek egindako ziurtagiri baten bitartez edo, ziurtagiri horren faltan, enpresariak eginiko aitorpenaren bitartez; bere kasuan, ziurtagiri hauek zuzenean kontratazio organoari igorriko dizkio eskumena duen agintaritzak.

Gutxieneko baldintza izango da egikaritze handieneko urtean pilatutako urteko zenbatekoa 100.000- euroren berdina edo handiagoa izatea,kontratuaren objektu den obraren talde bereko edo azpitalde bereko obratan, edo azpitalde desberdinetako lanak daudenean garrantzi handiena duen talde edo azpitalde bereko obratan.

Zerrendan adierazitako obren artean hartzailea sektore publikoko erakunde bat izan denetan egindako egikaritza egokiaren ziurtagiriak zuzenean kontratazio organoari igorri ahal izango dizkio zerbitzuak kontratatu dituen erakundeak.

- **500.000.-euro baino gutxiagoko balio zenbatetsia duten kontratuetan**, kontratista enpresa berria baldin bada, halakotzat hartuta bost urtetik behera dituena, bitarteko hau erabilita egiaztatu beharko da:

Lanak egiteko garaian edukiko duen makinaria, materiala eta ekipo teknikoa aipatzen duen aitorpena, eta bidezkoak diren egiaztagiriak erantsiko zaizkio.

- **Aldi baterako enpresa-elkartearen kasuan**, aldi baterako elkartearen kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala erabakitzeko, hura osatzen duten bakoitzarentzat egiaztatutako ezaugarriak batuko dira.

- **La Solvencia técnica**, se deberá acreditar utilizando el siguiente medio:

Relación de los principales obras ejecutadas en el curso de los cinco últimos años que incluya importe, fechas y el destinatario, público o privado, de los mismos.

Los servicios o trabajos efectuados se acreditarán mediante certificados expedidos o visados por el órgano competente, cuando el destinatario sea una entidad del sector público; cuando el destinatario sea un sujeto privado, mediante un certificado expedido por éste o, a falta de este certificado, mediante una declaración del empresario; en su caso, estos certificados serán comunicados directamente al órgano de contratación por la autoridad competente.

El requisito mínimo será que el importe anual acumulado en el año de mayor ejecución sea igual o superior a 100.000.- euros en rehabilitaciones o reformas interiores o en obras que sean del mismo grupo o subgrupo de clasificación que el correspondiente al contrato o del grupo o subgrupo más relevante para el contrato si este incluye trabajos correspondientes a distintos subgrupos.

Los certificados de buena ejecución de los obras incluidos en la relación cuyo destinatario fue una entidad del sector público podrán ser comunicados directamente al órgano de contratación por la entidad contratante de los servicios.

- En los contratos cuyo valor estimado sea inferiora 500.000.-euros, cuando el contratista sea una **empresa de nueva creación**, entendiendo por tal aquella que tenga una antigüedad inferior a cinco años, su solvencia técnica se acreditará mediante:

Declaración indicando la maquinaria, material y equipo técnico del que se dispondrá para la ejecución de los trabajos, a la que se adjuntará la documentación acreditativa pertinente.

- **En el caso de la unión temporal de empresas**, a los efectos de la determinación de la solvencia económica y financiera y técnica o profesional de la unión temporal, se acumularán las características acreditadas para cada uno de los integrantes de la misma.

Sailkapenaren betekizuna betetzen den baloratzeko balioztatzeko, taldean parte hartzen duten enpresariei dagokienez, kontuan hartuko dira, arauz zehazten den moduan, haietako bakoitzaren ezaugarri bateratuak, berei dagokien sailkapenetan adieraziak.

A los efectos de valorar y apreciar la concurrencia del requisito de clasificación, respecto de los empresarios que concurran agrupados se atenderá, en la forma que reglamentariamente se determine, a las características acumuladas de cada uno de ellos, expresadas en sus respectivas clasificaciones.

Nolanahi ere, bateratzeko, enpresa guztiek obra-enpresaren sailkapena lortu beharko dute aurretik, betiere SPKLren 69. artikuluaren 5. atalean espainiarrak ez diren Europar Batasuneko estatu kideetako eta sinatu duten estatuetako enpresarientzat finkatutakoaren kalterik gabe.

En todo caso, será necesario para proceder a esta acumulación que todas las empresas hayan obtenido previamente la clasificación como empresa de obras,sin perjuicio de lo establecido para los empresarios no españoles de Estados miembros de la Unión Europea.

Sailkapenak bateratzeko erregimena arauz finkatuta dagoena izango da.

El régimen de acumulación de las clasificaciones será el establecido de forma reglamentaria.

Kontratua enpresarien aldi baterako elkarte bati esleituko balitzaio, elkarteak eskritura publikoan egiaztatu beharko du eraketa, eta elkarte horri emandako IFZ ere egiaztatu beharko du, kontratua bere alde esleituzgero. Nolanahi ere, elkarteak kontratua iraungo arte iraun beharko du..

En el supuesto de que el contrato se adjudicase a una unión temporal de empresarios, ésta acreditará su constitución en escritura pública, así como el NIF asignado a dicha unión, una vez efectuada la adjudicación del contrato a su favor. En todo caso, la duración de la unión será coincidente con la del contrato hasta su extinción.

12. ESKABIDEAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedientea, baita horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, Udal honetako Kontratazio Sailean aztertu ahal izango da bulegoak jendearentzat irekita egoten diren ordutegian, egun baliagarri guztietan, lizitazio honen iragarkia **Kontratatzailearen profilean** argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, proposamenak aurkezteko epea bukatzen den arte.

Kontratazio Sailarekin harremanetan jartzeko:

Kontratazio Saila
Gudarien plaza, 1.
20120 Hernani
Tel. 943 337024 / Faxa 943 551141
e-posta: kontratazioa@hernani.eus
Kontratatzailearen profila: www.hernani.eus

Proposamenak www.contratacion.euskadi.eus lizitazio elektronikorako plataformaren bitartez aurkeztuko dira, kontratatzailearen profilean argitaratzen den iragarkiak emandako epearen barnean.

Lizitatzaile bakoitzak ezingo du eskaintza bat baino gehiago aurkeztu. Ezingo da beste batzuekin aldi

12. PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES

El expediente de esta contratación, así como la documentación técnica unida al mismo, podrá ser examinado en el Departamento de Contratación de este Ayuntamiento en horario de apertura al público de las oficinas, todos los días hábiles a partir del día siguiente a aquel en que aparezca publicado el anuncio de esta licitación en el **perfil de contratante** y hasta el vencimiento del plazo de presentación de proposiciones.

Para contactar con el Departamento de Contratación dirigirse a:

Departamento de Contratación
Gudarien plaza 1.
20120 Hernani
Tel. 943 337024 / Fax. 943 551141
e-mail: kontratazioa@hernani.eus
Perfil de contratante: www.hernani.eus

La presentación de ofertas se realizará por medios electrónicos a través de la plataforma de licitación electrónica www.contratacion.euskadi.eus en el plazo señalado en el anuncio de licitación publicado en el perfil del contratante.

Cada empresa licitadora no podrá suscribir más de una

baterako batasun batean parte hartzeko eskabiderik aurkeztu, baldin eta banaka ere aurkeztu bada, eta ezingo da aldi berean batasun batean baino gehiagotan parte hartu.

proposición. No se podrá presentar ninguna solicitud de participación en unión temporal con otros si se ha efectuado individualmente, o figurar en más de una unión temporal.

Enpresa lizitatzaileek **ARTXIBO ELEKTRONIKO BAKARRA** aurkeztu beharko dute: **"ERANTZUNKIZUNPEKO ADIERAZPENA ETA IRIZPIDE AUTOMATIKOAK"**

La empresa licitadora deberá presentar **UN UNICO ARCHIVO ELECTRÓNICO** denominado: **"DECLARACIÓN RESPONSABLE Y OFERTA DE CRITERIOS AUTOMÁTICOS"**

Hona hemen aurkeztu beharreko agiriak:

En este archivo se deberán incluir los siguientes documentos:

1) - Erantzukizunpeko adierazpena, agiri honen I. Eranskineko ereduaren arabera.

1.- Declaración responsable realizada conforme al modelo establecido en el Anexo I al presente pliego.

2.- Proposamen-eredua, agiri honen II. Eranskinean jasotako ereduaren arabera, behar bezala beteta.

2.- Modelo de Proposición recogido en el Anexo II a este pliego de condiciones, debidamente cumplimentado.

* Prozedura behar bezala aurrera eramateko beharrezkoa denean, Kontratazio Organo edo Mahaiak egiaztagiri guztiak edo zati bat aurkezteko eskatu ahalko die lizitatzaileei, baldin eta uste badu arrazoizko zalantzak daudela adierazpenaren indarraldi edo fidagarritasunari buruz, kontratua esleitu aurretik betiere.

* El órgano o la mesa de contratación podrá pedir a las empresas licitadoras que presenten la totalidad o una parte de los documentos justificativos, cuando consideren que existen dudas razonables sobre la vigencia o fiabilidad de la declaración, cuando resulte necesario para el buen desarrollo del procedimiento y, en todo caso, antes de adjudicar el contrato.

** Hainbat enpresa aldi baterako enpresa elkarte gisa aurkezten badira lizitazio honetara, enpresari horietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du, Pleguko I. Eranskineko eredua jarraituz.

** En el caso de Uniones Temporales de Empresarios. En el supuesto en que varios empresarios concurran agrupados en una unión temporal, cada empresa participante aportará la declaración responsable conforme al modelo del Anexo I al pliego.

Aurreko paragrafoak aipagai duen adierazpen horren edo horien osagarri gisa, parte hartu behar duten enpresariek aldi baterako enpresa elkartea SPKLren 69. artikuluaren 3. atalean eskatutakoaren arabera eta kontratua suntsitu arteko gutxienezko iraupenaz osatzeko konpromisoa aurkeztuko da.

Asimismo, deberá aportarse el compromiso de constituir la unión temporal por parte de los empresarios que sean parte de la misma de conformidad con lo exigido en el apartado 3 del artículo 69 LCSP, con una duración que será coincidente, al menos, con la del contrato hasta su extinción.

Konpromiso hori hartzeko idazkia elkartea eratzen duten enpresa guztiek sinatu behareko dute, eta honako hauek adierazi beharko ditu: aldi baterako enpresa elkarte bakoitza eratuko dutenen izenak eta inguruabarrak, elkarteko kide bakoitzaren partaidetza eta kontratuaren esleipendun gertatuz gero aldi baterako enpresa elkartea formalki eratzeko konpromisoa.

En el escrito de compromiso se indicará: los nombres y circunstancias de los que la constituyan; la participación de cada uno de ellos, así como la asunción del compromiso de constituirse formalmente en unión temporal en caso de resultar adjudicatarios del contrato. El citado documento deberá estar firmado por los representantes de cada una de las empresas que componen la unión.

*** Proposamenen bat ez badator bat aztertzen eta onartzen den dokumentazioarekin, lizitazioaren

***Si alguna proposición no guardase concordancia con la documentación examinada y admitida, excediese del

oinarrizko aurrekontua gainditzen badu, nabarmen ezberdina bada ereduaren aldean, ageriko akats bat badu zenbatekoari dagokionez edo bidera ezin bihurtzen duen akats edo ahuluneren bat badu aurkezten duen lizitatzailearen esanetan, Kontratazio Mahaiak baztertu egingo du, ebazpen arrazoitu baten bidez. Ereduko hitz batzuk aldatzea edo ez jartzea, ordea,ez da izango nahikoa proposamenak baztertzeko, haien zentzua aldatzen ez bada betiere.

presupuesto base de licitación, variase sustancialmente el modelo establecido, comportase error manifiesto en el importe de la proposición, o existiese reconocimiento por parte del licitador de que adolece de error o inconsistencia que la hagan inviable, será desechada por la Mesa de Contratación mediante resolución motivada, sin que sea causa bastante para el rechazo el cambio u omisión de algunas palabras del modelo si ello no altera su sentido.

**** Ez da onartuko ereduaren arabera idatzi ez den proposamena ekonomikorik, edo eskaintza kontuan hartzeko kontratazio-mahaiak funtsezkotzat jotzen duena argi jakitea galarazten duen omisiorik, akatsik edo ezabaketarik daukanik.

**** No se admitirá ninguna proposición económica que no venga redactada conforme al modelo exigido o que contenga omisiones, errores o tachaduras que impidan conocer claramente lo que la Mesa de Contratación estime fundamental para considerar la oferta.

13. EZ-OHIKO EDO NEURRIZ KANPOKO BALIOAK

Ez-ohiko edo neurriz kanpoko balioak dituzten eskaintzei dagokienez, SPKLren 149 artikuluan eta Herri Administrazioen Kontratuen Araudi Orokorraren 85. artikuluan xedatutakoa beteko da.

13. VALORES ANORMALES O DESPROPORCIONADOS

En cuanto a las ofertas con valores anormales o desproporcionados se estará a lo dispuesto el los art. 149 de la LCSP y art. 85 del Reglamento General de Contratos de las Administraciones Públicas.

14. KONTRATAZIO-MAHAIA

Hernaniko Udaleko Kontratazio Mahai iraunkorra izango da.

Gainera, Mahaiak etor daitezela eskatutako udal arduradun tekniko guztiak joan daitezke bertara, aholkularitza-lanak egitera.

14. MESA DE CONTRATACIÓN

Será la Mesa de Contratación permanente del Ayuntamiento de Hernani.

Podrán asistir, además, todos aquellos responsables técnicos municipales cuya presencia sea solicitada por la Mesa, para ejercer labores de asesoramiento.

15. AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA.

Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetan Kontratazio Mahaiak "artxibo elektroniko bakarra" irekiko du jendaurrean eta profilean jasotako deialdian hala zehazten bada, zuzenean jarraitu ahal izango da bertan jasotako lotura bidez.

Bai hasierako deialdia bai gerta litezkeen aldaketak kontratugilearen perfilean argitaratuko dira (www.hernani.eus) helbidean. Dena dela, jakinarazteko beste moduren bat ere jo liteke egokitzat.

Egintza berean Kontratazio mahaiak kalifikatu egingo du aldez aurretiko baldintzak bete izana egiaztatzen duen dokumentazioa eta lizitatzailearen adierazpen arduratsua.

Kontratazio-organoak edo kontratazio–mahaiak hala

15. CALIFICACIÓN DE DOCUMENTOS, SELECCIÓN DE EMPRESAS Y APERTURA DE PROPOSICIONES.

Una vez finalizado el plazo de presentación la Mesa de Contratación, procederá a la apertura del único archivo electrónico; se hará en acto público y en el caso de indicarse en su convocatoria en el perfil del contratante, podrá seguirse en directo a través del enlace que se señale en la citada convocatoria.

Tanto el mantenimiento de la convocatoria inicial como sus posibles modificaciones serán objeto de publicidad a través del perfil de contratante (www.hernani.eus), sin perjuicio de cualquier otro modo de notificación que se estime oportuno.

En la misma sesión, la Mesa de contratación calificará la documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos previos y la declaración responsable del licitador.

Será objeto de subsanación por las empresas licitadoras

eskatuta, lizitatzaileek adierazpen arduratsua zuzendu beharko dute, baldin ez bada aurkeztu edo aurkeztu dena ez badago behar bezala beteta. Halako kasuetan, eragindako lizitatzaileari edo lizitatzaileei, hiru laneguneko epea emango zaie, zuzentzeko-errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Ez bada epe horretan eskatutakoa zuzentzen, kontratazio-organo edo –mahaiak ulertuko du lizitatzaileak atzera egin duela bere eskaintzan.

la declaración responsable, a requerimiento del órgano o la mesa de contratación, cuando no se hubiera presentado, o no estuviera adecuadamente cumplimentada la presentada. En tales casos se conferirá a la empresa licitadora afectada un plazo de tres, a contar desde el siguiente al de recepción del requerimiento de subsanación. De no se subsanar en plazo lo requerido, el órgano o la mesa de contratación entenderá que la empresa licitadora desiste de su oferta.

Egintza publikoa amaitutakoan, bilkura berean, eskaintzak ebaluatuko eta sailkatuko ditu Mahaiak. Aurrez, honelakorik bada, pleguak finkatzen dituen eskakizunak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertuko ditu.

Finalizado el acto público, en la misma sesión, la Mesa procederá previa exclusión, en su caso, de las ofertas que no cumplan los requerimientos del pliego, a evaluar y clasificar las ofertas.

Proposamenen arteko puntuazio berdinketa egongo balitz (bi dezimaletan berdinketa) SPKLren 147.2 atalean jasotako irizpide sozialak hurrenez hurren aplikatuz erabakiko da, proposamenak aurkezteko epea bukatzen den unea kontuan hartuz.

El empate entre varias proposiciones (igualdad en la puntuación hasta dos decimales) se resolverá aplicando sucesivamente los criterios sociales recogidos en el artículo 147.2 de la LCSP, teniendo en cuenta el momento de finalización del plazo de presentación de proposiciones.

Gero, kontratua esleitzeko proposamena aurkeztuko dio Mahaiak kontratazio-organoari, puntuaziorik onena lortzen duen hautagaiaren alde; eta zera egiaztatuko du esleipendun izateko proposatzen duen lizitatzaileari dagokionez: enpresa behar bezala eratu izana; proposamenaren sinatzaileak eskaintza egiteko ahalorde askietsia izatea; kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa izatea edo, bestela, dagokion sailkapena; eta kontratatzeko inongo debekuren pean ez egotea.

Seguidamente, la Mesa elevará al órgano de contratación su propuesta de adjudicación a favor del candidato con mejor puntuación. Previamente, y en relación con el licitador propuesto como adjudicatario, la Mesa comprobará en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas que la empresa está debidamente constituida, el firmante de la proposición tiene poder bastante para formular la oferta, ostenta la solvencia económica, financiera y técnica o, en su caso la clasificación correspondiente y no está incursa en ninguna prohibición para contrata

Gainera, kontratua esleitzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko eskatuko dio puntuaziorik onena ateratzen duen enpresari, baita, dagokionean, Lizitatzaileen Erregistroan ez dagoen beste edozein dokumentu ere.

Asimismo, la Mesa requerirá a la empresa que ha obtenido la mejor puntuación, la documentación necesaria para la adjudicación y, en su caso, cualquier otra documentación que no figure en el Registro de Empresa licitadoras.

16. KONTRATUA ESLEITZEA ETA GAUZATZEA

16.1. Kontratazio Mahaiak, SPKLren 150. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, kontratazio-organoari igorriko dizkio aurkeztutako proposamenak, beheranzko hurrenkeran antolatuak, eta baztertuak edo neurriz kanpokotzat jo direnak salbu, aktarekin eta esleipen-proposamenarekin batera.

16.2 Esleipen proposamenak ez du lizitatzailearen aldeko eskubiderik sortzen. Eskubideak sortuko dira lizitatzaileak kontratua sinatu edo esleipen

16. ADJUDICACIÓN Y FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO

16.1.- La Mesa de Contratación, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 150 de la LCSP elevará al órgano de contratación, clasificadas por orden decreciente, las proposiciones presentadas y que no hayan sido excluidas o declaradas desproporcionadas o anormales, junto con el acta y la propuesta de adjudicación.

16.2.- La propuesta de adjudicación del contrato no crea derecho alguno en favor del licitador propuesto, que no los adquirirá frente a la Administración, mientras no se haya formalizado el contrato o, en su caso, aceptada

proposamena onartzen duenean.

16.3 Mahaiak enpresari eskatuko dio (edo ABEE osatzen duten enpresei), Lizitatzaileen Erregistroan izena emanda agertzeko obligaziorik ez badago edo datu edo dokumentuetakoren bat Erregistro horretan jasota ez badago, honako dokumentazio hau aurkeztu dezaten epe berean:

16.3.1. Lizitatzailearen nortasuna egiaztatzeko dokumentuak:

- Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, nortasuna,osaera, edo hala badagokio, aldaketa eskritura bidez egiaztatuko da, baldintza hori eskatzen den kasuetan. Bestela, osaera dokumentua, estatutuak edo sortze ekintza aurkeztu beharko du jarduera arautzen duten arauak jasota, dagokion Erregistro Ofizialean inskribatua, hala behar izanez gero. Pertsona juridikoak bakarrik izan daitezke esleipendun beren estatutuen edo sortze arauen arabera dagozkien helburuen eta jarduera esparruaren barneko prestazioak jasotzen dituzten kontratuak direnean, eta kontu horrek egiaztatuta egon behar du aurkeztutako dokumentazioan.

- Lizitatzailea pertsona fisikoa bada, Nortasun Agiri Nazionala edo baliokide den dokumentuaren bitartez.

16.3.2. Eskaintzaren sinatzailearen ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentazioa (pertsona horrek beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean jarduten duenean).

16.3.3. Eskaintzak aurkezteko fasean egindako adierazpenaren arabera kontratatzeko daukan kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzeko dokumentazioa. (11. atalaren arabera).

16.3.4 Zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioak betetzen dituela egiaztatzen duten justifikazio dokumentuak.

16.3.5. Erantzukizun zibilaren aseguru-poliza, **Baldintzen Agiriko 19. baldintzan** aurreikusia, eta Eraikuntzako Arrisku Orotakoa.

16.3.6.Dagokion **behin- betiko bermea** aurkeztu izanaren ziurtagiria.

por el contratista la resolución de adjudicación.

16.3.- La Mesa requerirá a la empresa (o a las empresas integrantes de la UTE), en aquellos casos en los que no resultara exigible la obligación de figurar inscrito en el Registro de Licitadores o cuando alguno de los datos o documentos no constaran inscritos en el referido Registro, para que presenten en el mismo plazo, la siguiente documentación:

16.3.1 Documentación relativa a la personalidad del licitador:

- Si el licitador fuese persona jurídica la personalidad se acreditará mediante Escritura de constitución o modificación, en su caso, inscrita en el Registro Mercantil, cuando este requisito fuera exigible. Si no lo fuere, deberá aportar documento de constitución, estatutos o acto fundacional en el que consten las normas por las que se regula su actividad, inscritos, en su caso, en el correspondiente Registro oficial. Las personas jurídicas solo podrán ser adjudicatarias de contratos cuyas prestaciones estén comprendidas dentro de los fines, objeto u ámbito de actividad que a tenor de sus estatutos o reglas funcionales le sean propios, cuestión que deberá quedar acreditada en la documentación aportada.

- Si el licitador fuera persona física, mediante la presentación del Documento Nacional de Identidad, o documento que haga sus veces.

16.3.2 Documentación acreditativa de la representación que ostenta el firmante de la oferta (en caso de que éste actúe en nombre de otra persona, física o jurídica).

16.3.3 Documentación acreditativa de la solvencia económica-financiera y técnica o profesional conforme a la declaración efectuada en la fase de presentación de ofertas (conforme apartado nº 11)

16.3.4 Documentación justificativa de hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.

16.3.5 Póliza de seguro de responsabilidad civil, prevista en el **cláusula 19º del pliego** y de Todo Riesgo de Construcción.

16.3.6 Acreditación de la constitución del a **garantía definitiva** que sea procedente.

16.3.7. Egin beharreko azpikontratuen zerrenda aurkeztu, azpikontratatutako enpresa bakoitzak egin beharreko kontratu zatiak adieraziz.

16.3.7 Presentar la relación de los subcontratos a celebrar, con indicación de las partes del contrato a realizar por cada empresa subcontratada.

16.3.8.Esleipenduna enpresen batasun bat baldin bada, kontratua sinatu aurretik, Enpresen Aldi Baterako Batasun gisa legez eratu dela egiaztatu beharko du, eta horren IFK aurkeztu.

16.3.8 En el supuesto de que el contrato se adjudicase a una unión temporal de empresarios, ésta acreditará su constitución en escritura pública, así como el NIF asignado a dicha unión, con anterioridad a la firma del mismo.

Errekerimendua adierazitako epean behar bezala bete ezean, ulertuko da lizitatzaileak kendu egin duela bere eskaintza. Kasu horretan, puntuazioan hurrengoa den hautagaiaren alde esleitzeko proposamena egingo da eta dokumentazio bera eskatu zaio.

De no cumplirse el requerimiento en el plazo señalado, se entenderá que la empresa licitadora ha retirado su oferta, procediéndose a proponer la adjudicación a favor de la empresa licitadora siguiente, por el orden en que hayan clasificado las ofertas solicitándole la misma documentación.

Kontratazio organoari dagokio esleipena egitea eta ebazpen arrazoitu bidez erabakiko da; erabakia esleipendunari jakinaraziko zaio eta baita gainontzeko lizitatzaileei ere. Kontratatzailearen profilean argitaratuko da, SPKLren 151.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz

La adjudicación del contrato corresponde al órgano de contratación y se acordará mediante resolución motivada que será notificada al adjudicatario y al resto de empresas licitadoras y publicada en el perfil de contratante, tal y como recoge el art.151.1 de la LCSP.

Kontratua formalizazioarekin gauzatuko da, SPKLren 153. artikuluan jasotakoaren arabera.

El contrato quedará perfeccionado con la formalización, la cual se llevará a cabo de conformidad con lo dispuesto en el art. 153 LSP.

III.- KONTRATUA BURUTZEA

17. KONTRATUA BURUTZEA

Administrazioak **Obrako Zuzendaritza Fakultatibo** bat izendatuko du eta Zuzendaritza horren ardura izango da kontratuaren xede den obra behar bezala egiten dela egiaztatzea, koordinatzea, zaintzea eta ikuskatzea.

Obra horiek Baldintzen Agiri honetan ezarritako baldintzekin bat etorriz egingo dira, eta halaber, esleipendunak Obra Zuzendaritzari ematen dizkion jarraibideekin bat etorriz. Jarraibide horiek ahoz emanak baldin badira, idatziz berretsi beharko dira lehenbailehen, alderdientzako lotesleak izan daitezen.

Pleguaren xede diren **obretarako teknikarien artean obra burua** egongo da. Obra burua izango da, hain zuzen, obraren eraikitzailearen eledun eta ordezkari teknikoa eta, obraren ezaugarri eta zailtasunarekiko gaitasun egokia emango dion titulazio eta esperientzia izango du (arkitektoa, arkitekto teknikoa, industria ingeniaria, industri ingeniari teknikoa, bide ingeniaria edo herri-lanetako ingeniari teknikoa).

III.- EJECUCIÓN DEL CONTRATO

17. EJECUCIÓN DEL CONTRATO

La administración designará una **Dirección facultativa de la Obra** responsable de la comprobación, coordinación, vigilancia e inspección de la correcta realización de la obra objeto del contrato.

Las obras se ejecutarán con estricta sujeción a las cláusulas estipuladas en este pliego y conforme a las instrucciones que diere al contratista a la Dirección de la obra. Cuando dichas instrucciones fueren de carácter verbal deberán ser ratificadas por escrito en el más breve plazo posible, para que sean vinculantes a las partes.

El **personal técnico asignado** a la obra objeto del pliego, deberá contar con **un Jefe de Obra** que asumirá la interlocución y representación técnica del constructor de la obra y que por su titulación y experiencia tendrá la capacitación adecuada de acuerdo con las características y la complejidad de la obra (Arquitecto, Arquitecto Técnico, Ingeniero Industrial, Ingeniero Técnico Industrial, Ingeniero de Caminos o Ingeniero Técnico de Obras Públicas).

Obra burua izango da kontratistaren ordezkaria Udalak izendatutako kudeatzailearen eta obra zuzendaritzaren aurrean, eta, ondorioz, alde desberdinen arteko komunikazio-bide formala.

El Jefe de Obra será el representante del contratista frente a la gerencia designada por el Ayuntamiento, y la Dirección de Obra, en consecuencia cauce de comunicación formal entre las partes.

Etengabeko presentzia izan beharko du eta une oro egon beharko du Obra Zuzendaritzaren eta Udalak izendatutako kudeatzailearen eskura.

Su presencia deberá ser continuada, debiendo estar en todo momento a disposición de la Dirección de Obra y de la gerencia designada por el Ayuntamiento.

Obra-buruak **obra-arduradunaren** laguntza izango du, erabateko dedikazioz.

El Jefe de Obra estará auxiliado por un **Encargado** de obras, con dedicación exclusiva.

Egiaztatu beharko da bai obra-buruak eta baita obra-arduradunak ere horrelako lanetan gutxienez 3 urteko esperientzia izatea.

Se acreditará que tanto el Jefe de Obra como el Encargado de obras, tengan una experiencia mínima de 3 años en obras similares

Kontratuaren arduraduna (SPKLren 62.art): Kontratazio-organoak kontratuko arduradun gisa pertsona fisiko nahiz juridiko bat izendatu ahal izango du, titulazio eta kualifikazio egokia eta nahikoa duena, erakunde kontratatzaileari atxikia nahiz harekin zerikusirik ez duena, eta hark gainbegiratuko du kontratua egoki gauzatzen dela, kontratuan ezarritakoarekin bat etorriz burutzen dela egiaztatuz, eta esleipendunari eta zuzendaritza fakultatiboari kontratazio-organoaren agindu eta jarraibideak helaraziko dizkio.

Responsable del contrato art. 62 de LCSP. El órgano de contratación podrá designar una persona física o jurídica, con titulación y cualificación adecuada y suficiente, vinculada al ente contratante o ajena a él, como responsable del contrato, quien supervisará la ejecución del mismo, comprobando que su realización se ajusta a lo establecido en el contrato, y cursará al contratista y a la dirección facultativa las órdenes e instrucciones del órgano de contratación.

Kontratuaren ardura duen pertsonak eta haren laguntzaileek sarbide librea edukiko dute kontratatutako prestazioa eskaintzen den tokietara, esleipendunak izendatutako pertsonak lagunduta.

La persona responsable del contrato y sus colaboradores tendrán libre acceso a los lugares donde se realice la prestación contratada, acompañados por la persona designada por la contratista.

Kontratazio-organoak egindako izendapen hori idatziz jakinaraziko die Administrazioak enpresa esleipendunari eta zuzendaritza fakultatiboari. Kontratua gauzatzen den bitartean izendapen hori aldatzen baldin bada, enpresa esleipendunari idatziz ezagutaraziko zaio berdin-berdin.

La designación realizada por el órgano de contratación será comunicada por escrito a la empresa contratista y a la dirección facultativa por la Administración. Si durante la ejecución del contrato se modificara la designación, será puesta igualmente en conocimiento de la empresa contratista por escrito.

Obra bisitak

Udalak izendatutako ordezkariari beharrezkoa iruditzen zaion guztietan egingo dira obrako bisitak, eta gutxienez zazpi egunetik (7) behin. Bisita horietara derrigorrez joango dira Obra Zuzendaritza eta Obra Buruak. Udalak izendatutako ordezkaria ere obra bisitetara joango da.

Visitas de obra

Las visitas de obra se realizarán cuantas veces lo estime necesario la persona designada por el Ayuntamiento y, como mínimo, cada siete (7) días. A dichas visitas asistirán obligatoriamente la Dirección de Obra y el Jefe de Obra. La persona designada por el Ayuntamiento también asistirá a las visitas de obra.

Enpresa esleipenduna behartua dago, une oro, Obrako Zuzendaritza Fakultatiboaren eta kontratuko arduradunaren esku egongo den Aginduen Liburua obran bertan edukitzera, eta haiek bertan idatzi beharko dituzte obra egin bitartean izandako bisitak, gorabeherak eta aginduak. Enpresa esleipenduna behartua dago, bere kabuz edo bere ordezkariaren

La empresa contratista está obligada a conservar y a tener a disposición, en todo momento, en la obra el Libro de Órdenes que estará a disposición de la Dirección facultativa de las obras y de la persona responsable del contrato, quienes deberán consignar en él las visitas, incidencias y órdenes que se produzcan durante el desarrollo de la obra. La empresa contratista estará

bitartez, agindu horiek jaso izanaren egiaztagiri egokia sinatzera.

obligada por sí o por medio de su persona delegada a firmar el oportuno acuse de recibo de tales instrucciones.

Harrera egiteko ekitaldian behar bezala betetako Aginduen Liburua aurkeztu dadila eskatuko da, eta hura Administrazioaren esku geratuko da harrera egin ondoren.

En el acto de recepción se exigirá la presentación del Libro de Órdenes debidamente cumplimentado, el cual pasará a poder de la Administración una vez efectuada la recepción.

Obra burutzeko epe orokorra **2. baldintzan** ezarritakoa izango da.

El plazo general de ejecución de la obra será el que se fija en la **cláusula 2º.**

Zuinketa-akta izenpetzearekin batera hasiko da obra-kontratuaren burutzapena, eta hori egutegiko **1 hilabeteko epean** izan beharko da, kontratua izenpetzen den egunetik kontatzen hasita.

La ejecución del contrato de obra comenzará con la firma del acta de **comprobación del replanteo**, que deberá tener lugar dentro del plazo máximo de **1 mes** contados desde la fecha de firma de contrato.

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da, eta esleipendunak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango obretan galera, matxura edo kalteak izaten baditu, SPKLren 239. artikuluan adierazitako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura del contratista y éste no tendrá derecho a indemnizaciones por causas de pérdidas, averías o perjuicios ocasionados en las obras, salvo en los casos de fuerza mayor previstos en el artículo 239 de la LCSP.

Esleipendunari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

Cuando por actos u omisiones imputables al contratista o a personas de él dependientes se comprometa la buena marcha del contrato, la Administración podrá exigir la adopción de las medidas que estime necesarias para conseguir o restablecer el buen orden en la ejecución del mismo.

Ezinbesteko kasuetan, eta esleipendunaren aldetik ausarkeriazko jardunik ez badago, berari sortutako kalte eta galeren kalte-ordainak jasotzeko eskubidea izango du esleipendunak.

En casos de fuerza mayor y siempre que no exista actuación imprudente por parte del contratista, éste tendrá derecho a una indemnización por los daños y perjuicios que se le hubiesen causado.

SPKLTBaren 239. artikuluan ezarritakoak izango dira ezinbesteko kasuak eta APKLAOren 146. artikuluan xedatutakoaren arabera tramitatuko dira.

Tendrán la consideración de casos de fuerza mayor los establecidos en el art. 239 LCSP que se tramitarán de conformidad con lo dispuesto en el artículo 146 del RGLCAP.

18. EXEKUZIO BALDINTZAK BEREZIAK

18. CONDICIONES ESPECIALES DE EJECUCIÓN

18.1 ESLEIPENDUNAREN LAN EGINKIZUNAK.

18.1. OBLIGACIONES LABORALES DEL CONTRATISTA

Klausula honetan jasotako betebeharrak exekuzioko baldintza berezitzat jotzen dira; horiek ez betetzeak, beraz, agiri honetan horretarako jasotako zigorrak ezartzea ekarriko du, antolamendu juridikoak aurreikusitako ondorioez gain.

Las obligaciones laborales recogidas en este apartado se consideran **condiciones esenciales de ejecución del contrato**, cuyo incumplimiento dará lugar a la imposición de las penalidades previstas en este pliego.

Kontratisten gutxieneko lan-baldintzak.

Condiciones laborales mínimas.

- Lan legeria, gizarte segurantza eta Hitzarmen

- La empresa contratada y en su caso, la

kolektiboen alorrean indarrean dauden legezko xedapenak bete beharko dira, baita 31/95 Legen (laneko Arriskuen prebentziorako Legea) eta lege hori garatzen duten errege-dekretuetan jasotako guztia. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

subcontratada están obligadas a cumplir las disposiciones legales vigentes en materia laboral, de Seguridad Social, convenios colectivos, y todo lo comprendido en la Ley 31/95, de prevención de riesgos laborales, y en los reales decretos que la desarrollan, quedando la Administración exonerada de responsabilidad por este incumplimiento.

- Lizitatzaileek adierazi beharko dute, esleipena jaso ezkero, kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa eta, halaber, eskatzen den informazio guztia eman beharko dela, behin kontratua esleitu eta gero, langileei benetan aplikatuko zaizkien lanbaldintzei buruz.

- Los licitadores o licitadoras están obligados a indicar el convenio colectivo que será de aplicación a los trabajadores y trabajadoras que realicen la actividad objeto del contrato, en el caso de resultar adjudicatarios, así como la obligación de facilitar cuanta información se requiera sobre las condiciones de trabajo que, una vez adjudicado el contrato, se apliquen efetivamente a esos trabajadores y trabajadoras.

- Esleipendunak hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko duela, kontratua gauzatzen den denbora guztian, betiere langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaintzekoa den soldata ezin izango da, inola ere, soldata hura baino txikiagoa izan.

- El adjudicatario o adjudicataria deberá, a lo largo de toda la ejecución del contrato, abonar el salario recogido en el convenio colectivo de aplicación según la categoría profesional que le corresponda a la persona trabajadora, sin que en ningún caso el salario a abonar pueda ser inferior a aquel.

- Hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa esleipen-ebazpenean jasoko da eta, halaber, kontratatzailearen profilean argitaratuko da, enpresa esleipendunak adierazita badauka kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei aplikagarri zaiela halako hitzarmen kolektiboa.

- La información sobre el convenio colectivo que la empresa adjudicataria declare aplicable a los trabajadores y trabajadoras que realicen la actividad objeto del contrato se incluirá en la resolución de adjudicación y se publicará en el perfil de contratante.

- Lehiatzen direnek beren buruaz eta beren borondatez onesten dute gardentasun instituzionala ematea lizitazio-, esleitze- eta gauzatze-prozesuen ondorioz sortzen diren datu guztiei, prozesu horiek bukatu arte.

- Los licitadores están obligados a la aceptación voluntaria de dar transparencia institucional a todos los datos derivados de los procesos de licitación, adjudicación y ejecución hasta su finalización.

18.2 HIZKUNTZA BALDINTZAK

Enpresa esleipendunak, zerbitzua ematerakoan, Udalak bere hizkuntzazko jarduera arautzeko dituen planen arabera jokatuko du.

1.- kontratuaren exekuzioa erabiliko den hizkuntza

- HIZKUNTZA PAISAIA:

Enpresa esleipendunak obra egingo den eremuan jartzen dituen errotulu, seinale, ohar, kartel eta

18.2. REQUISITOS LINGUISTICOS

La empresa adjudicataria procederá a la hora de ofrecer el servicio de acuerdo con la planificación del Ayuntamiento en cuanto a regulación de la actividad lingüística.

1.- Lengua a utilizar en la ejecución del contrato:

- PAISAJE LINGÜÍSTICO:

Los rótulos, señalización, avisos, carteles y resto de comunicaciones de carácter general que instale la empresa adjudicataria en la zona en la que se va a

gainerako komunikazio orokorrak euskaraz idatziko dira ondorengo kasu hauetan:

- Hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean.
- Mezuak piktograma bidez lagundurik direnean eta haren bitartez ulergarriak direnean.
- Oso zabalduak dauden hitzetan (musika eskola, kultur etxea...).

Aurreko hiru kasuak ezinezkoak direnean, ele bitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere Udalarekin aldez aurretik adostuta.

- ENPRESA ESLEITUA ETA UDALAREN ARTEKO HARREMAN HIZKUNTZA:

Enpresa esleipendunaren eta Udalaren arteko ahozko —bilerak, kontsultak...— nahiz idatzizko harremanak —fakturak, txostenak...— Udalaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira, hau da, euskaraz. Enpresa esleipendunak Udalarekin harremanetan aritzeko izendatuko duen pertsona elebiduna izango da.

2.- hizkuntza baldintzen jarraipena eta ez betetzea:

Kontratazioa sustatu duen udal sailaren arduradunak jarraipena egingo du zerbitzu hau emateko eskatu diren hizkuntza baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

19. ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE.

Obrak burutzen diren bitartean, esleipendunaren erantzukizun izango dira edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko nahiz pribaturi egindako kalteak eta galerak, baldin eta bere agindupean dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo obrak behar bezala ez antolatu, babestu edo seinaleztatzeagatik gertatzen badira.

Aurreko paragrafoetan zehaztutakoari begira, esleipendunak, kontratua sinatu aurretik, ondorengo aseguru-kontratuen polizaren kopia eta ordainagiriak aurkeztu beharko ditu:

realizar la obra se hará en euskera en los siguientes casos:

- Cuando la grafía de las palabras sea similar en euskera y en castellano
- Cuando los mensajes vayan acompañados de pictogramas que los hagan comprensibles
- Cuando se trate de palabras de uso extendido (musika eskola, kultur etxea...).

Cuando los tres casos anteriores no sean posibles, se hará de forma bilingüe, dando prioridad al euskera, previa conformidad del Ayuntamiento.

- LENGUA A UTILIZAR EN LA RELACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO Y LA EMPRESA:

La comunicación verbal —reuniones, consultas...— y escrita —facturas, informes...— que mantenga la empresa adjudicataria con el Ayuntamiento será de acuerdo al idioma de trabajo del mismo, es decir, en euskera. La persona designada por la empresa adjudicataria para relacionarse con el Ayuntamiento sea bilingüe.

2.- Seguimiento e incumplimiento de los requerimientos lingüísticos:

Será responsabilidad del departamento del Ayuntamiento que ha impulsado la contratación hacer el seguimiento para la verificación del cumplimiento de los requerimientos lingüísticos.

19. RESPONSABILIDAD DEL CONTRATISTA POR LOS DAÑOS CAUSADOS A TERCEROS DURANTE LA EJECUCIÓN DEL CONTRATO.

El contratista será responsable, durante la ejecución de las obras de todos los daños y perjuicios que se puedan ocasionar a cualquier persona, propiedad o servicio, público o privado, como consecuencia de los actos, omisiones o negligencias del personal a su cargo, o de una deficiente organización, protección o señalización de las obras.

Para lo definido en los anteriores párrafos, el adjudicatario, antes de la firma del contrato, deberá aportar copia de la póliza y justificante de pago de los siguientes contratos de seguro:

a) **Eraikuntzako Arrisku Orotarako Poliza**, egindako obrek eta egiten ari direnek jasan ditzaketen kalteak estaliko dituena, aseguratu gisa Hernaniko Udala barneratuz, eta ondorengo estaldurak izango dituena:

1.- Suteek, tximistek, leherketek, lapurretek, espoliazioek, talkek, trebetasunik ezak, zabarkeriak, ekintza bandaliko eta borondate txarrekoek eragindako arriskuek, naturaren arriskuek eta/edo izendatu ez den beste edozein arriskuk sortutako kalteak.

2.- Beste berme gehigarri batzuk, ondokoekin lotuak:

- Diseinu-akatsak, fabrikatzailearen arriskua.
- Gastuak aparteko orduengatik, hondakinak ateratzeagatik, eraisteagatik, agintaritzak hartutako neurriengatik eta abarrengatik.
- Lehendik dauden ondasunei egindako kalteak.

Arrazoia eraikuntza aldian duen edozein galera edo kalte bermatuta geratuko da, baita aldi horretan edo hurrengoetan sortzen den beste edozein ere, obra-kontratuan finkatutako betebeharrak egoki betetzearren burututako lanak egin izanaren ondorioz.

Poliza hori mantendu beharreko epealdia, gutxienez, urtebetekoa izango da obren harrera egiten denetik aurrera.

b) **Erantzukizun Zibileko Poliza,** horren orokortasuna, patronala, gurutzatua eta amaitutako lanak bere barne hartuz, aseguratu gisa kontratista, azpikontratista eta Administrazioa obren sustatzaile gisa sartuz, eta gutxienez **600.000** €ko diru-zenbatekoa bermatuz.

c) Kontratista behartua dago obren berri ematen duten kartelak bere kontura jartzera, eta obraren berri ematen duten kartelez gain baita obrarako sarbideak adieraztekoak edo, obrak egingo diren lekuaren inguruko zirkulazioari buruzkoak eta lanak direla eta arriskutsuak izan daitezkeen guneei

a) Póliza de Todo Riesgo Construcción, que cubra los daños que puedan sufrir las obras realizadas y en curso de realización, incluyendo como asegurado al Ayuntamiento de Hernani, y que cubra las siguientes coberturas:

1.- Los daños derivados de los riesgos de incendio, rayo, explosión, robo, expoliación, impacto, impericia, negligencia, actos vandálicos y malintencionados, de los riesgos de la naturaleza y/o cualquier otro riesgo no denominado.

2.- Garantías adicionales derivadas de:

- Error de diseño, riesgo de fabricante.
- Gastos por horas extraordinarias, desescombrado, demolición, medidas adoptadas por la autoridad, etc.
- Daños a bienes preexistentes.

Quedará asegurada toda pérdida o daño que resulte de una causa cuyo origen se encuentre en el período de construcción, así como la que se ocasione en esta etapa o posteriores como consecuencia de la ejecución de los trabajos llevados a cabo con el fin de dar correcto cumplimiento a las obligaciones estipuladas en el contrato de obras.

El periodo de mantenimiento de la póliza será, como mínimo, de un año a partir de la recepción de las obras.

b) Póliza de Responsabilidad Civil, en sus vertientes de general, patronal, cruzada y trabajos terminados, incluyendo como asegurado al contratista, subcontratistas y la Administración como promotora de las obras, garantizando, como mínimo, un importe de **600.000 €.**

c) El contratista está obligado a instalar a su costa, los carteles anunciadores de las obras, así como las señales precisas para indicar el acceso a la obra, la circulación en la zona que ocupen los trabajos y los puntos de posible peligro debido a la marcha de aquellos, tanto en dicha zona como en sus

buruzkoak ere, eremu horretan, eremuaren mugetan nahiz inguruetan.

límites e inmediaciones.

20. KONTRATUA ALDATZEA

1.- Behin kontratua burutzen denean interes publikoko arrazoiengatik bakarrik aldatu ahal izango da klausula honetan ezarritako kasuetan edo SPKLren 205. eta 242. artikuluan ezarritako kasuetan eta bertan ezarritako mugekin.

Kontratuan aldaketak sartu behar direnean, kontratuaren zuzendaritzak beharreko proposamena idatziko du, hura justifikatzen, deskribatzen eta baloratzen duten dokumentuek osatua. Administrazioak aldaketa onartu aurretik enpresa kontratistari entzun beharko zaio. Kontratazio organoak onartu beharko ditu aldaketak, SPKLren 191. eta 207. artikuluetan aurreikusitako prozedura tramitatu eta SPKLren 153. artikuluan xedaturikoaren arabera dokumentu administratiboa formalizatu ondoren, behin betiko bermea berregokituta, hala behar badu.

2.- SPKLren 242. artikuluaren arabera, ez dira aldaketatzat joko:

- Gehiegizko neurketak (lanak behar bezala egiterakoan, proiektuan aurreikusitako unitateen kopurutik desberdinak izatea); betiere, guztizko gastua ez bada igotzen hasierako kontratuaren % 10 baino gehiago. Nolanahi ere, obra amaierako ziurtagirian adieraziko dira gehiegizko neurketak.

- Prezio berriak sartzea, Legeak eta hura garatzeko arauek finkatzen dituzten prozedurak jarraituz, kontraesanezko moduan finkatutakoak; betiere, ez badakarte kontratuaren guztizko gastua igotzea eta ez badagozkie guztira hasierako aurrekontuaren % 3 baino gehiago diren obra unitateei.

21. OBREI HARRERA EGITEA ETA BERME-ALDIA

Obrak amaitu eta, gehienez, **hilabete** pasatu baino lehen, obrei **harrera** egiteko ekitaldia egingo da eta ekitaldi horren akta idatziko da.

Kontratuaren harrera SPKLren 243. artikuluan

20. MODIFICACIONES DEL CONTRATO

1.- Una vez perfeccionado el contrato, solo se podrán introducir modificaciones por razones de interés público, en los casos previstos en esta cláusula o en los supuestos y con los límites establecidos en el art. 205 y 242 de LCSP.

Cuando sea necesario introducir modificaciones en el contrato la dirección del contrato redactará la oportuna propuesta, integrada por los documentos que justifiquen, describan y valoren aquella. La aprobación de la modificación por la Administración requerirá la previa audiencia de la empresa contratista. Las modificaciones deberán ser aprobadas por el órgano de contratación, previa tramitación del procedimiento previsto en el art. 191 y 207 de la LCSP y formalizarse en documento administrativo con arreglo a lo señalado en el art. 153 LCSP, previo reajuste de la garantía definitiva en su caso.

2.- De conformidad con lo dispuesto en el art. 242 de la LCSP, no tendrán la consideración de modificaciones:

- El exceso de mediciones, entendiendo por tal, la variación que durante la correcta ejecución de la obra se produzca exclusivamente en el número de unidades realmente ejecutadas sobre las previstas en las mediciones del proyecto, siempre que en global no representen un incremento del gasto superior al 10 por ciento del precio del contrato inicial. Dicho exceso de mediciones será recogido en la certificación final de la obra.

- La inclusión de precios nuevos, fijados contradictoriamente por los procedimientos establecidos en dicha Ley y en sus normas de desarrollo, siempre que no supongan incremento del precio global del contrato ni afecten a unidades de obra que en su conjunto exceda del 3 por ciento del presupuesto primitivo del mismo.

21. RECEPCIÓN DE LAS OBRAS Y PLAZO DE GARANTÍA

En el plazo máximo de un **mes** desde la finalización de las obras se producirá el **acto formal y positivo de recepción** de las mismas, del que se levantará la correspondiente acta.

La recepción del contrato se regirá por lo establecido en

ezarritakoaren bidez arautuko da eta, halaber, Herri Administrazio Kontratuen Legearen Araudi Orokorraren 163. atalean eta hurrengoetan ezarritakoaren bidez.

el artículo 243 de la LCSP y en los artículos 163 y siguientes del Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.

Harrera egiten den unean, esleipendunak ondorengo betebehar hauek betetzen dituela egiaztatuko da bereziki:

- Obren amaierako txukuntze-lanak egin dituela, eta beraz, esleipendunak hasierako egoeran berrezarri beharko ditu obrek eragindako inguruak eta obrek okupatu ez dituztenak.
- Kontratua akatsik gabe bete dela.
- Esleipendunaren lizitazio-eskaintza bete dela.
- Exekuzio-baldintzak bete direla.

Al tiempo de la recepción se comprobará en particular el cumplimiento por el contratista de las siguientes obligaciones:

- El despeje final de las obras, debiendo el contratista haber restituido a su situación inicial las zonas afectadas por las obras y no ocupadas por ellas.
- El cumplimiento no defectuoso del contrato.
- El cumplimiento de la oferta de licitación del contratista.
- El cumplimiento de las condiciones de ejecución.

Gainera, **URTEBETEKO** berme-aldia egongo da, harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta lege horren Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako berme gisa finkatuko dena.

Asimismo, se establece un plazo de **UN AÑO**, a contar desde la fecha de recepción formal, a los efectos previstos en la Ley de Contratos del Sector Público y en el Reglamento General de la referida Ley.

Lizitatzaileek adierazitako berme epea handitzea proposatu ahal izango dute eta epearen hobekuntzak plegu administratiboan adierazi bezala baloratuko dira. Esleipendunak proposaturiko epeak udalak aurreikusitako urtebeteko epea guztiz ordezkatuko du ondorio guztiekin.

Los licitadores podrán proponer la ampliación del plazo de garantía señalado, valorándose en la forma indicada en el pliego administrativo. El plazo propuesto por el adjudicatario sustituirá totalmente al plazo de un año previsto por el ayuntamiento con todos sus efectos.

Berme-aldi horretan obrak kontserbatzeak eragiten dituen gastu guztiak esleipendunaren kontura izango dira, eta ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango kontzeptu horrengatik.

Todos los gastos que se ocasionen por la conservación de las obras durante el periodo de garantía serán de cuenta del contratista, no teniendo derecho a ninguna indemnización por este concepto.

Nolanahi ere, esleipendunak kontratua bete ez eta eraikuntzak ezkutuko akatsak izateagatik obra berme-alditik kanpo hondatzen bada, esleipendunak kalte eta galerei aurre egiteko erantzukizuna izango du **hamabost urteko epean**, obren harrera egiten denetik kontatzen hasita. Epe hori amaitutakoan, bestelako kalte edo galerarik gertatu ez bada, esleipendunaren erantzukizuna amaitutzat joko da. (SPKLren 244 art.)

No obstante, si la obra se arruina con posterioridad a la expiración del plazo de garantía por vicios ocultos de la construcción, debido a incumplimiento del contrato por parte del contratista, responderá éste de los daños y perjuicios que se manifiesten durante **un plazo de quince años** a contar desde la recepción. Transcurrido este plazo sin que se haya manifestado ningún daño o perjuicio, quedará totalmente extinguida la responsabilidad del contratista. Art. 244 LCSP.

21.1 OBRA BUKAERAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Obren behin betiko egoeraren planoak ("As Built"), horietan bai lur gaineko hirigintza-lanak eta bai egindako edo aldatutako azpiegiturako sare guztiak eta gauzatutako elementu bereziak jasoko dira. Plano horiek udalaren oinarri kartografikotik (behar bezala eguneratua) abiatuta prestatuko dira eta egindako obra

21.1 DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR A LA FINALIZACIÓN DE LAS OBRAS

Planos del estado definitivo ("As Built") de las obras, en los que se recoja tanto la urbanización de superficie, como la totalidad de las redes de infraestructura y elementos singulares ejecutados o modificados. Dichos planos se elaborarán a partir de la base cartográfica municipal (debidamente actualizada) y contendrán los

(hirigintza berria bere sestrekin, kanalizazioen trazadurekin eta sareen elementuekin - kutxatilak, putzuak, eta abar) behar bezalako zehaztasunarekin deskribatzeko beharrezko diren datuak jasoko dituzte).

Plano horiek inprimatuta eta DWG formatu digitalean aurkeztuko dira.

datos necesarios para describir con la pormenorización suficiente la obra realizada (nueva urbanización con sus rasantes, trazados de las canalizaciones y elementos arquetas, pozos, etc.- de las redes).

Dichos planos se entregarán tanto en soporte impreso como en formato digital DWG.

Nolanahi ere, irudikapen digitala, ezaugarriei eta baldintzei dagokienez (euskarri mota; programa informatikoa; artxiboen formatua eta neurria; idatzizko edukiaren eta eduki grafikoaren antolamendua eta sistematizazioa; eta abar), Udal Ordenantza Multzoko "Baimenak arautzeko Ordenantza" (X) Hamargarren Tituluan (horren bidez arautzen da baimenen eskaera, izapidetzea eta gauzatzearen kontrola) horretarako jasota egon daitezkeen akordioetara egokituko da, edo bestela, helburu horretarako Udalari egokiak iruditzen zaizkionetara.

En todo caso, la representación digital, en lo referente a sus características y condiciones (tipo de soporte; programa informático; formato y dimensión de archivos, organización y sistematización del contenido tanto literario como gráfico; etc.), se adecuará a las estipulaciones que al efecto puedan estar contenidas en el Título Décimo (X) del Cuerpo de Ordenanzas Municipales (por el que se regula la solicitud, tramitación y control de la ejecución de licencias), ó a las que en cada caso específico estime adecuadas el Ayuntamiento.

Obren Kalitatea Kontrolatzeko Liburuaren kopia, onetsitako Hirigintza Lanen Proiektuan sartutako Planean aurreikusitakoaren arabera.

Copia del Libro de Control de Calidad de las obras, según lo previsto en el correspondiente Plan incluido en el Proyecto de Obras de Urbanización aprobado.

Udalaren zerbitzu teknikoek, obraren izaera teknikoaren arabera eta hori gauzatzeko zehaztasunak, aplikatuko zaion araudi berezia, edo behar bezala arrazoitutako hainbat irizpide kontuan hartuta aurreko zerrendan sartu gabe dauden dokumentuak aurkezteko eskatu ahal izango diote kontratistari, edo horren beharrik ez baldin badago lehen adierazitako horietakoren bat aurkezteko obligaziotik salbuetsi.

Los servicios técnicos municipales, en función de la naturaleza técnica de la obra, de las particularidades de su ejecución, de la normativa específica que le sea de aplicación, ó de otros criterios debidamente fundamentados, podrán exigir al contratista la aportación de documentos no incluidos en el listado anterior, ó si resultara superfluo, podrán eximirle de la obligación de presentación de alguno de los ya enunciados.

22. ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

22. PENALIDADES AL CONTRATISTA POR INCUMPLIMIENTO

a) Kontratua burutzeko epeak direla eta

a) De los plazos de ejecución del contrato

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan egin beharreko obrak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatu, edo obrak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigor hauek ezarri:

Si el contratista, por causas imputables al mismo, hubiese incurrido en demora respecto del cumplimiento del plazo de ejecución del contrato, tanto del plazo total como, en su caso, de los plazos parciales, la Administración podrá optar indistintamente por la resolución del mismo, con pérdida de la garantía, o por la imposición de las penalidades diarias en la proporción que se detalla:

- Atzerapena egutegiko egun 1 eta 10 egun artekoa bada, egunean 0,5 euroko zigorra kontratuaren prezio osoaren 1.000 euroko.

- De 1 a 10 días naturales de retraso, en su caso, generado por el incumplimiento, penalización de 0,5 euro por cada 1.000 euros diarios del precio total del contrato.

- Atzerapena egutegiko 11 egun eta 20 egun artekoa bada, egunean 0,75 euroko zigorra kontratuaren prezio osoaren 1.000 euroko.
- Atzerapena egutegiko 21 egunetik gora bada, egunean 1 euroko zigorra kontratuaren prezio osoaren 1.000 euroko.

- De 11 a 20 días naturales de retraso, en su caso, generado por el incumplimiento, penalización de 0,75 euro por cada 1.000 euros diarios del precio total del contrato
- De 21 días naturales de retraso en adelante en su caso, generado por el incumplimiento, penalización de 1 euro por cada 1.000 euros diarios del precio total del contrato.

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

Cada vez que las penalidades por demora alcancen un múltiplo del 5 por 100 del precio del contrato, el Órgano de Contratación estará facultado para proceder a la resolución del mismo o acordar la continuidad de su ejecución con imposición de nuevas penalidades.

b) kontratua burutzeko baldintza bereziak direla eta

b) De las condiciones especiales de ejecución

Baldintzen Agiri honetan ezarritako exekuzio-baldintza berezi horietako edozein ez betetzeak, hala egokituz gero, esleipendunari ondorengo zigorrak ezartzea eragingo du:

El incumplimiento de cualquiera de las condiciones especiales de ejecución establecidas en este pliego, en su caso, dará lugar a la imposición al contratista de las siguientes penalidades:

- Arau orokor gisa, zigorraren zenbatekoa kontratuaren esleipen-zenbatekoaren % 1ekoa izango da. Alabaina, Kontratazio Organoak, arrazoituta, egindako ez-betetzea larria edo oso larria izan dela jotzen badu, orduan zigorra %5 artekoa edo legez ezarritako gehieneko %10 artekoa ere izan daiteke, hurrenez hurren. Ez-betetzea behin eta berriz gertatzen bada, larritasuna baloratzeko kontuan hartu ahal izango da.

- Como regla general, su cuantía será de un 1 % del importe de adjudicación del contrato salvo que, motivadamente, el Órgano de Contratación estime que el incumplimiento es grave o muy grave, en cuyo caso podrán alcanzar hasta un 5% o hasta el máximo legal de 10% respectivamente. La reiteración en el incumplimiento podrá tenerse en cuenta para valorar la gravedad.

Esleipendunak exekuzio-baldintza bereziak betetzen dituen ala ez edozein unetan egiaztatu ahal izango du Kontratazio Organoak kontratua burutzen ari den bitartean, eta edonola ere, obrei harrera egiten zaienean egiaztatuko da.

El cumplimiento por el adjudicatario de las condiciones especiales de ejecución podrá verificarse por el Órgano de Contratación en cualquier momento durante la ejecución del contrato, y en todo caso, se comprobará al tiempo de la recepción de las obras. De la ejecucion parcial de las prestaciones

c) Kontratua partzialki edo akatsak dituela bete baldin bada.

c) Por cumplimiento parcial o defectuoso

Honako zigor hauek ezarriko dira kontratua akats hauekin bete baldin bada:

Se impondrán penalidades por cumplimiento defectuoso en los siguientes términos:

- Obrei harrera egiteko garaian, kontratistari lepora dakizkiokeen arrazoiengatik, harrera egiteko moduan ez badaude.

- Si, al tiempo de la recepción, las obras no se encuentran en estado de ser recibidas por causas imputables al contratista.

- Arau orokor gisa, zigorraren zenbatekoa

- Como regla general, su cuantía será un 2 % del

kontratuaren aurrekontuaren % 2koa izango da. Alabaina, Kontratazio Organoak, arrazoituta, egindako ez-betetzea larria edo oso larria izan dela jotzen badu, orduan zigorra % 5 artekoa edo legez ezarritako gehieneko % 10 artekoa ere izan daiteke, hurrenez hurren. Ez-betetzea behin eta berriz gertatzen bada, larritasuna baloratzeko kontuan hartu ahal izango da.

presupuesto del contrato, salvo que, motivadamente, el Órgano de Contratación estime que el incumplimiento es grave o muy grave, en cuyo caso podrán alcanzar hasta un 5% o hasta el límite legal de 10% respectivamente. La reiteración en el incumplimiento podrá tenerse en cuanta al valorar la gravedad.

Dena dela ere, zigorrak jartzeak ez du esan nahi kontratistak ez dituenik akatsak konpondu behar, legez baitauka obligazio hori betetzeko betebeharra.

En todo caso, la imposición de las penalidades no eximirá al contratista de la obligación que legalmente le incumbe en cuanto a la reparación de los defectos.

d) Azpikontratazioko baldintzak betetzen ez badira.

Esleipendunak plegu honetako 23. klausulan azpikontratatzeko aurreikusten diren baldintzak betetzen ez badira zigorra azpikontratazio zenbatekoaren %50 artekoa izango da SPKLren 217 artikuluarekin bat etorriz.

Udalak kontratua etetea erabaki dezake, 211.f artikuluak xedatutakoa ematen bada.

d) Por incumplimiento de las condiciones de subcontratación

El incumplimiento por parte del adjudicatario de las condiciones previstas en la cláusula 23 de este pliego para la subcontratación supondrá una penalización de hasta el 50% del importe de subcontratación de acuerdo con el artículo 217 de la LCSP.

El Ayuntamiento podrá acordar la suspensión del contrato si se dicta lo dispuesto en el artículo 211 f.

Eskumena eta ordainketa

Zehapenak kontratazio organoak erabakiko ditu, aurrez dagokion prozedura izapidetu ondoren, eta kontratistari eta hala badagokio abal emaileari entzunaldia eman ondoren.

Zehapen hauek kontratistari egin beharreko ordainketetatik kenketa eginez ordainduko dira, edo behin betiko bermearen kontura.

Klausula honetan aurreikusi ez diren gaietarako SPKLren 192tik 195 artikuluan jasotakoak aplikatuko dira.

Competencia y abono

Las sanciones serán acordadas por el órgano de contratación, previa la tramitación del correspondiente procedimiento y audiencia del contratista y, en su caso, del avalista.

El pago de estas sanciones se realizará mediante deducción de los pagos que deban realizarse al contratista o con cargo a la garantía definitiva.

Para todo lo no previsto en la presente cláusula será de aplicación lo establecido en los arts. 192 a 195 de la LCSP.

23. AZPIKONTRATAZIOA

Esleipendunak kontratuaren zati bat gauzatzeko lana hirugarrenekin kontratatzeko, SPKLren 215. artikuluan zehaztutako baldintzak beteko dira, eta azpikontratista eta hornitzaileei egin beharreko ordainketan SPKLren 216 artikuluan xedatutakoari jarraitu beharko zaio.

Horiek horrela, kontratista nagusiak bere gain hartuko du kontratua gauzatzeko erantzukizun osoa udalaren aurrean, administrazio-klausula agiri honek jasotakoari eta kontratuaren nondik norakoei zorrozki lotuz, barne hartuta arlo sozialeko eta laboraleko betebeharrak betetzea.

23. SUBCONTRATACIÓN

La contratación por el adjudicatario de la realización parcial del contrato con terceros estará sujeta a los requisitos establecidos en el artículo 215 LCSP, así como el pago a subcontratistas y suministradores deberá ajustarse a lo dispuesto en el artículo 216 LCSP.

En consecuencia, el contratista principal asumirá la total responsabilidad de la ejecución del contrato frente al Ayuntamiento, con arreglo estricto a este Pliego y a los términos del contrato, incluido el cumplimiento de las obligaciones en materia social o laboral.

24. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Kontratua suntsiarazi egingo da SPKLren 211. eta 245. artikuluetan adierazitako kasuetan. Kontratua suntsiarazteko erabakia kontratazio-organoak hartuko du, ofizioz edo kontratistak eskatuta, kontratistari entzunaldia bermatzen zaion prozedura baten bidez, SPKLren 212 eta 246. artikuluetan eta APKLAOren 110etik 113. artikulura eta 172. artikuluan aurreikusitako ondorioekin.

Kontratua suntsiarazten bada, proiektuarekin bat etorriz egindako obrak egiaztatu, neurtu eta likidatu egin beharko dira, eta kontratistaren alde edo aurka egoki diren saldoak zehaztu beharko dira.

Kontratua kontratistaren ez-betetze errudun baten ondorioz suntsiarazten bada, bermea konfiskatuko zaio eta, horrez gain, eragindako kalte eta galeren ordaina eman beharko dio Administrazioari, konfiskatutako bermearen zenbateko hori baino handiagoak baldin badira.

25. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Kontratu administratiboak interpretatzeko eta kontratu horiek betetzean sortzen diren zalantzak erabakitzeko prerrogatiba du kontratazio-organoak. Era berean, interes publikoko arrazoiengatik, kontratuak aldatu, haiek suntsitzea erabaki eta suntsitze horren ondorioak zehaztu ahal izango ditu, SPKLan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuan zehaztutako mugak, baldintzak eta ondorioak kontuan harturik.

IV. IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

26. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza-agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, bereziki, Azaroaren 8ko, 9/2017 Legeak Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, eta, halaber, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsiak, ezarritako arauak bete beharko dira, baita herri-administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerakoak ere.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio

24. CAUSAS DE RESOLUCIÓN DEL CONTRATO

La resolución del contrato tendrá lugar en los supuestos que se señalan en los arts. 211 y 245 LCSP y se acordará por el órgano de contratación de oficio o a instancia del contratista mediante procedimiento en el que se garantice la audiencia a éste y con los efectos previstos en los artículos 212 y 246 LCSP y 110 a 113 y 172 del RGLCAP.

La resolución del contrato dará lugar a la comprobación, medición y liquidación de las obras realizadas con arreglo al proyecto, fijando los saldos pertinentes a favor o en contra del contratista.

Cuando el contrato se resuelva por incumplimiento culpable del contratista le será incautada la garantía y deberá, además, indemnizar a la Administración los daños y perjuicios ocasionados en lo que exceda del importe de la garantía incautada.

25. PRERROGATIVAS DE LA ADMINISTRACIÓN

El órgano de contratación ostenta la prerrogativa de interpretar los contratos administrativos y resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento. Igualmente, podrá modificar por razones de interés público, los contratos y acordar su resolución y determinar los efectos de ésta, dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos señalados en la LCSP y por el Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento general de la ley de Contratos de las Administraciones Públicas.

IV.- NATURALEZA, RÉGIMEN JURÍDICO Y JURISDICCIÓN COMPETENTE

26. NATURALEZA Y RÉGIMEN JURÍDICO

El contrato que en base a este pliego se realice, tendrá carácter administrativo y en todo lo no previsto en él se estará a lo dispuesto, específicamente en la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, así como en el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, y demás normas que, en su caso, sean de aplicación a la contratación de las Administraciones Públicas.

En caso de contradicción entre el presente Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y el resto de la

teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

documentación técnica unida al expediente, prevalecerá lo dispuesto en este Pliego.

27. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honek berarekin izaera pertsonaleko datuetan sartzea dakarrenean, enpresa kontratistak SPKLaren Hogeita Bosgarren Xedapen Gehigarrian finkatutako betebeharrak bete beharko ditu, Datu Pertsonalen Babesari buruzko 2018/1725 Europar Erregelamenduari eta Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Legeari dagokienez.

27. PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL.

En el caso de que la presente contratación implique el acceso a datos de carácter personal, el contratista deberá cumplir las obligaciones derivadas de la Disposición Adicional Vigésima Quinta de la LCSP, en relación con el Reglamento Europeo 2018/1725 relativo al a protección y tratamiento de datos personales y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales, y garantía de derechos digitales.

28. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratutik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren mende egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek hala nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorriz.

28. JURISDICCIÓN COMPETENTE

Las cuestiones litigiosas que se deriven del contrato se entenderán sometidas a la jurisdicción contencioso-administrativa, no obstante lo cual, las partes pueden acordar el sometimiento de sus litigios a arbitraje, conforme a lo establecido en la legislación vigente.

Hernani, 2024ko maiatza/ Hernani, mayo de 2024

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus